

Txakur kontuak

Ara emen «Arin» izendun txakur baten edesti arrigarria. Edestia diot, egia dalako, geure etxean gertatua edo jazorikoa, ez ipuiñ edo kontua. Nik ez nuan Arin ezagutu, ni jayo baño len il zalako, baño neure gurasoei sarri askotan entzundakoa det.

Gure aita itxasgizona zan, eta urte askotan «Petra y Eulalia» izendun itxasontzi bat agindu zuan. (*Belako barkua* Zumaya nere errian esan oi dan bezela).

Itxasontzi onen *karrera* Zumaya'tik Cadiz'era iraulika (hidráulica) eramatea, eta Cadiz'tik Zumaya'ra gaiza ekartzea izaten zan geyenian. Baña noizean beñ, Gijon'era iraulika eraman eta andik arrikatza ekarri ere egiñ oi zuan.

Itxasontzi onetako txakurra zan Arin, amaikatxo bider Cadiz, Ceuta eta Gijon'era juan da etorri egiña nere aitakin «Petra y Eulalia'n».

Onelako ostera baten, Gijon'dik Zumaya'ra zetozela, mariñel batek esan zion gure aitari:

—Txakur orrek zerbait bai du; ez Jesus eta ez Amen aginkada egin dit eta.

—Euk zer egin diok?

—Nik ezer ez, bere ondotik igarotzea baizik. Ezkerreko zankoa eraman ez ditanean...!

Gure aita oroitu zan, ostera artan txakurra ez zala itxasontzian egon (*barruan* esan oi dute mariñelak *a bordo* adierazteko) portuan egon ziran bitartean, berakin juan etorri batzuek egiña zala errian, eta txakur amorraturen batek ebatuta edo amorratu egiñ ote zan; eta mariñelari (Timoteo Esteibar bere izena) ben-ben agindu zion:

—Bota ezak itxasora.

Eta besteak bai azkar bota ere. *Arin* ez zuten geyago ikusi.

Au gertatu zan Santander'ko alturan, eta andik bi egunera (edo irura, ez nago ziur) *Ariñ* Zumayan, gure etxean aurkeztu zan, gure ama, aitona ta amoma bildurrez beterik, itxasontzia galdua eta txakurra bakarrik salbatua izango zalakoan, egualdi ederrak izan ziran arren «Petra y Eulalia» Gijon'dik atera zanetik. Nola zeikean bada txakurra etxera etortzia?

Ariñ'ek poz aundia erakusten zuan bere burua etxean ikustez; jo goyak eta jo beyak, ganbarara eta ataira, sukaldera eta logeletara, pozen pozaz geldi egon aurkitu bai zituan bezela.

Urrengo egunian sartu zan Zumaya'n «Petra y Eulalia» eta itxasgizon danak arrituta gelditu ziran *Ariñ*, Santander'ko alturan itxasoan erdian uretara jaurtitako txakurra, eurak baño egun bat lenago Zumaya'ra etorrita bizirik ikusi zutenean.

Nola egiñ al izan zuan *Ariñ* azkarrak *record* ikaragarri au? Itxasoz igerian barkuari jarraituaz? Edo itxasora bota zutenean, legorrerantz igeri egiñ eta gero mendiz-mendiz edo erriz-erriz? Edo ta lenegoz iregian barkuari jarraituaz eta gero, Matxixtako edo alako lurmuturren bat ezagutu zuanean, legorrera erten da oñez?

Iniork ez daki, Eskutuki au, andik urte batzuetara il zanean berekiñ eraman zuelako beste mundura. Beste mundura gaizki diot, txakurrak ez dutelako beste mundurik.

Geroztik *Ariñ*'ek ez zuan itxasora juan nai izan. Biajerako gauzak gertatzen etxean asten ziranean, burua makur-makur eginda zokondo batera juan oi zan, intziri apal eta tristeak egiñaz, errukarria...!

Gure aitari eta itxasontziko beste gizon danari maitetasuna erakusten zien, bati izan ezik: Timoteo Esteibar, uretara bota zuanari.

Urberuagatik, 1957'garreneko agorrillan.

(*Arritokieta Andrea*)

